

UTZ DIEZAI OGUN HARREMANAK KONTSUMITZEARI

Gaur, Otsailak 14 San Valentín eguna da edo batzuk deitzen dioten bezala, maiteminduen eguna. Kontzientziak piztu dituen edonor konturatuko zen jada, denda haundiek deskribatzen duten maitasun hori opari materialekin erakusteak, enpresa handiei bakarrik egiten diela mesede eta berriro ere, sistema urteko egun hau kontsumoarekin zuzenean lotzen dabilela etekin ekonomikoa ateratzea xede. Baina kontzientziak piztu dituzuen askok ere badakizue kontu hau askoz ere haratago doala, ezin garelako "sistemak egun hau kontsumora bideratzen du" ideiarda mugatu eta arazoaren errora joan behar dugulako, hau da bikote/maitasun eredu tradizional eta erromantiko(r)a.

Izan ere, bikote harreman eredu hau sistema heteropatriarkal kapitalista sostengatzeko tresna da eta funtzio zehatzak izango ditu. Era honetan, emakume* edo neska* gazteen menpekotasuna betikotu eta genero-rolak areagotzetik, familia zein etxebizitza propioa izatera prestatzen gaitu. Harreman eredu hau gure bizitzen erdigunean jartzeak, hamaika biolentzia normalizatzeaz gain (kontrola, zeloak...), gizarteko arazoak bigarren planoan utzi, proiektu komunitarioetatik aldendu eta sistemaren logika patriarkal eta kapitalistatik at dauden sareak eraikitzea ezinezkoa egiten du.

Baina orduan, nola egiten du sistemak herritarren ehuneko handi batek harreman eredu hauek izateko? Alde batetik, pelikula, nobela, pertsonaia... desberdinekin eredu hau desiragarriak bilakatuz eta bestalde, bikote harremanen neurriko mundua eraikiz: etxeak, jatetxeak, aisialdia... bikoteen neurrira eginez. Hortaz ez da aukera bat izango, inposatuko zaigun eredu baizik. Bikote harreman eredu tradizionalak bizitzen erdigunean jartzeak, bikotetik kanpo ere eragina du, izan ere, gainontzeko harremanak azalekoak, erantzukizun afektiborik gabekoak, gure nahiei soilik erantzuten dietenak... izango dira, hortaz kontsumitzen ditugun harremanak arituko gara eraikitzen.

Ezin dugu egoera hau normalizatu, gure bizitzak sostengatuko dituzten harreman sareak eraiki nahi ditugu, aberatsak eta kalitatezkoak direnak, gure buruak eta komunitatea garatzea ahalbidetuko dutenak. Lagunak, auzokideak, militantzia sareak... bizitzaren erdigunean kokatu nahi ditugu hauek izango baitira aske egingo gaituztenak. Horretarako, berriro ere zaintzak erdigunean jarriz, gure bizitzak bizigarriak izan arte.

NESKA* GAZTEOK BORROKAN GAUDE!

EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEAK